

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Paterak kontrako norantzan



Imagen de los inmigrantes de "La Elvira" a su llegada a Puerto de Garupano, Venezuela, en Mayo 1949

Apresados en Venezuela 160 inmigrantes ilegales Canarios

VENEZUELA, 1949KO MAIATZA.

Kanariar uharteetako 160 etorkin zeramatzan La Elvira belaontzia Carupanoko portura iritsi zen. Hori xe dio behintzat Interneten dabilen ustezko egunkari zati honek. Ustezko diogu, e-posta jaso bezain pronto, dokumentua susmagarria dela konturatzea erraza delako. 1949ko egunkarietan ez zen ohikoa letra tipo hori erabiltzea, eta "inmigrante ilegal" terminoa ere ez zegoen gaur bezain zabaldia. Gainera, argazki-oinak horrela dio: "Imagen de los tripulantes de La Elvira a su llegada a Puerto Garupano, Venezuela, en mayo de 1949". Egunkaria garai hartakoa balitz, zergatik dio 1949ko maiatzean iritsi zela? Gaurko edozein egunkariko argazki-oin batean 2007ko apirila aipatzeak ere ez luke zentzurik. Gainera "Garupano"ra iritsi zirela aipatzen da; testua kopiatu duenak akatsa egin du hor. Argazki-oina kopiatua baita.

2005eko abenduaren 10eko *El País* egunkarian La Elviraren argazki bera agertu zen, eta azpian, e-postaz iritsi zaigun dokumentu faltsuko oina. Badakigu, beraz, dokumentuaren 'asmatzaileak' nondik hartu

duen argazkiaren azalpena. Eta badakigu, titular faltsuak dioena benetako berri batean dagoela oinarritua.

Etorkinak ez ziren 160, 106 baizik; 95 gizon, hamar emakume eta lau urteko neskato bat, *Agencia Comercial* Venezuelako egunkariak 1949ko maiatzaren 26ko alean jaso zuenez. Eta guztiak ez ziren kanariarrak; besteak beste, euskaldunen bat ere bazen tartean.

La Elvira 1853ko belaontzi zaharra zen, baina Ramon Redondok

dirutza ordaindu zuen harengatik: 225.000 pezeta. Ontzia gainezka egin arte jendez bete eta Amerikara eraman nahi zuen. Bidaiari bakoitzak 6.000 pezeta ordainduko zizkion eta horrela negozio borobila izango zen La Elvirarena. Baina Redondoren teoriak ez ziren praktikan bete. Gehienek Amerikara iristean ordainduko ziotela agindu zioten, gero hitza bete gabe.

La Elvirarentzat ere ez zuen kapitain egokiena aukeratu. Antonio Dominguezek aterako zuen ontzia portutik eta gero lema Elortegi kapitainak hartuko zuen. Baina Elortegik ez zekien ezertxo ere ontziei buruz; Euskal Herritik ihes egin zuen eta, dirurik gabe, gezurra esanez lortu zuen bidaia-txartela.

Azkenean, kostata baina lortu zuten euren helburua, 36 egun itsasoan pasa ondoren, ia jatekorik gabe. Carupanoko biztanleek harrera ona egin omen zieten; behi bat ere hil zuten etorkin-gosea asetzeko.

Mende erdi geroago, Kanariar uharteak etorkinen abiapuntu baino jomuga bihurtu dira. Eta e-postaz iritsi zaigun hemerroteka dokumentu (ez hain) faltsuak, zer memoria historiko gutxi dugun gogorarazi digu. ■

ARRASTOAK



BELGIKAKO lehen ministro Guy Verhofstadt-ek ez die herritarrei euren historia ezkutatu nahi. Ezta pasarterik ilun eta deserosoenak ere. Txosten baten bidez ondorioztatu berri dute, II. Mundu Gerran, 25.000 judu Auschwitzera deportatu zituztela Belgikako instituzioen laguntzarekin. Azterketak, gainera, gobernuaz gain herritar askok ere naziekin kolaboratu zutela nabarmentzen du. Lehen ministroak eskolako testuliburuak txostenaren edukiak jaso ditzatela eskatu du.

ESKLABOTZA duela 200 urte abolitu zuten Britainia Handian, 1807ko martxoaren 25ean onartutako lege batez. Europako beste herrialdeek bide bera hartu zuten, geroago, Vienako Kongresuan (1815). Efemerideak polemika berpiztu du: esklaboen ondorengoez ordain ekonomikoa jaso beharko al lukete? Hainbat elkarteek Tony Blair lehen ministroari esklabotzagatik barkamena eskatu eta erantzukizuna onartzeko eskatu diote. Oraingoz, Blairrek barkamen moduko adierazpen ez ofiziala baino ez du egin.

